

COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiaren ondorioz, eta osasun-agintariek dekretatutako alarma-egoera indarrean dagoen bitartean, IVAPek neurri batzuk hartu ditu hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko antolatzen dituen deialdietan aplikatzeko. Horretarako, indarrean dagoen araudiak ezartzen edo gomendatzen dituen segurtasun-neurriak kontuan hartuta, azterketen aplikazio eta zuzenketarako protokolo bat ezarri da, eta webgune honetan eskuragarri dago. Protokolo horretan zehazten da hautagaiak derrigorrez bete behar dituzten babes-neurriak:

- Norbera babesteko ekipamendua (NBE): Hautagaiak maskara kirurgikoa edo FFP2 motakoa eraman behar dute, azterketa-tokira sartzeko eta azterketa egiteko.
- Hautagaiak boligrafoa eraman behar dute.
- Gela guztietan gel hidroalkoholikoa egongo da hautagaien eskura.
- Ahal dela, denbora osoan 2 metroko distantzia gordeko da, hautagaien artean zein hautagaien eta aztertzaileen artean.

Bestalde, azterketak ere osasun-egoera berrira egokitu dira. Entzumena mintzamen-saioarekin batera neurtuko da, berariazko entzumen probarik egin gabe. Eta idatzizko azterketaren egitura izango da taula honetan zehazten dena:

	IRAKURMEN PROBA		IDAZMEN PROBA		DENBORA GUZTIRA
	Ariketa kopurua	aurreikusitako denbora	Ariketa kopurua	aurreikusitako denbora	
1.HE	2 ariketa	30 minutu	Ariketa bakarra	30 minutu	1 h
2.HE	2 ariketa	30 minutu	Ariketa bakarra	40 minutu	1 h 10 m
3.HE	2 ariketa	35 minutu	Ariketa bakarra	50 minutu	1 h 25 m
4.HE	2 ariketa	40 minutu	Ariketa bakarra	60 minutu	1 h 45 m